



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA



Organismo Autónomo

GOBIERNO VASCO




Buru eta Sorgin

5 UNITATE
DIDAKTIKOA

IPUINA
TESTU LUZEA

Izenburua/Título:	NAHIKO! BERDINTASUNERAKO, ERRESPETURAKO ETA BIOLENTZIA-EZARAKO HEZKIDETZA PROGRAMA NAHIKO! Programa Coeducativo para la Igualdad, el Respeto y la No-violencia
Zuzendaritza eta koordinazioa Dirección y coordinación:	EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea EMAKUNDE/Instituto Vasco de la Mujer Manuel Iradier, 36 01005 Vitoria-Gasteiz www.emakunde.euskadi.net emakunde@ej-gv.es
Gauzatze/Realización:	OREBE HEZKUNTZA S.L. Aholkularitza eta Zerbitzuak/Asesoría y servicios educativos
Argitalpena/Edición:	EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea EMAKUNDE/Instituto Vasco de la Mujer
Deskribatzaileak/ Descriptores:	Hezkidetza, Genero-indarkeria, Ikasmateriala, Lehen mailako irakaskuntza Coeducación, Violencia de género, Material didáctico, Enseñanza de primer grado
ISBN	ISBN: 978-84-89630-25-3



Behin bazen, hiru hilez behingo txangoa
Berdinland eskolan.



- Lehenengoz egin behar duguna, nora joan nahi dugun erabakitzea da -esan zien maisuak.
- Benetan?, edonora joan gaitezke? -galdetu zuen berehala Sorginek.



Sorgin oso mutil saltseroa zen. Parranda,
planak, bilerak, alaitasuna... zegoenean...
bera erdi-erdian beti!






- Edonora, ez. Zer izan beharko genuke kontuan? -galdetu zien maisuak.
- Gehienen gustukoa izatea.
- Egun berean joan-etorri ahal izatea.
- Dena ondo antolatu eta prestatzeko aukera izatea.
- Daukagun dirua baino gehiago balio ez izatea.



Baldintza hauekin, denak nora joan pentsatzen
hasi ziren, eta ozenki esaten joan ziren:

- Niri jolas-parkera
joatea gustatuko
litzaidake.
- Bai, baina
sarrera oso
garestia da!





- Nik trenez egin nahi dut bidaia bat.
 - Baina horretarako denbora asko beharko genuke!
 - Eta etorkizunera bidaiatzen badugu?
 - bururatu zitzaion Sorgini.
 - Bai zera!, nola? -esan zuten batzuek.
- Bere lagun Buruk harrituta begiratu zuen.



Buru zenbaki eta ordenagailuetan apartekoa zen. Bazekien ezin zutela etorkizunera joateko makina bat egin. Horregatik esan zuen:

- Eta etorkizunean biziko garen lekuak bisitatzeko baditugu? Eta helduak garenean egitea gustatuko litzaigukeena orain probatzen badugu?

$$\begin{array}{r} 2012 \\ + 18 \\ \hline 2030 \end{array} \quad \begin{array}{r} + \text{[factory icon]} \\ \hline 2030 \end{array}$$



Guztiei asko gustatu zitzaien Bururen ideia.

- Etorkizuna irudikatu dezagun! Zer gustatuko litzaizueke egitea helduak zaretenean? Zer lan egin nahi duzue? Zer egingo zenuketen aisialdian? Norekin eta nola biziko zinateketen?... -galdetu zien maisuak.






Guztiak gauzak esaten hasi ziren eta Sorginek ideiak idatzi zituen arbelean.

- Niri seme-alabak izatea, zaintzea eta beraiekin jolastea gustatuko litzaidake -esan zuen Sorginek.
- Niri ez. Nik kazetaria izan nahi dut eta munduan zehar bidaiatu -esan zuen neska batek.

- Nik ordenagailuekin lan egin nahi dut -esan zuen Buruk.
- Eta nik trenak egin nahi ditut! -esan zuen kide batek.
- Niri kirolaria izatea gustatuko litzaidake, eta geroago... talde bat entrenatzea -esan zuen neska batek.
- Nik dantzatzen ikasi nahi dut -esan zuen mutil batek.





Arbelean ideia guztiak
ikusita eta gero, haur
eskolara, Sorginen amak
lan egiten zuen tren
enpresara eta igeri egiten ikastera joaten
ziren polikiroldegira joatea erabaki zuten. Leku
horietan etorkizunean egin nahi zuten guztia
ikus zezaketen!... Etorkizunera nola joan
bazekiten!!

Pozik zeudenez, abesti hau kantatu zuten:

♪♪ Zure etorkizuna / zuk aukeratu,
gogoz eta ahaleginez / geroa prestatu,
ikasi, jolas, dantza / denbora banatu,
neskek eta mutilek / egin dezakegu. ♪♪




Esan eta egin. Goizean goiz autobusa hartu zuten eta haur eskolara joan ziren. Han "amak eta aitak" izan ziren tarte batean.



Haur eskolako maistrak eta maisuak beren bizitzaren arlo hori etorkizunean nolakoa izan zitekeen ikustera erakutsi eta lagundu zieten.






Haurtxoekin kolorezko kuboekin dorreak
eraikitzen jolastu ziren.


Ondoren, beren tronetan eserita purea
eman zieten bazkaltzeko.






Garbitu eta aldatu zituzten eta, azkenean, bere lagunek umeak sehasketan jartzen zituzten bitartean, Sorginek bere abesti gustukoena abestu zien lo har zezaten.

- Haurtxo bati purea ematen ari nintzaionean, puffff! egin du eta gainera bota dit. Eskerrak mantala jartzeko esan didazula -eskertu zion neska batek maistrari.
- Niri Sorginek lagundu dit. Neska bati jaten ematen ari nintzaionean, berak keinuak egi-ten zizkion etengabe entretenitzeko -gehitu zuen mutil batek.



- Ikusi duzue -esan zien maisuak-. Sorgin bere burua oso ondo prestatzen ari da izan nahi duen etorkizunerako.







- Zergatik aukeratu duzu lanbide hau?
- galdetu zion neska batek haur eskolako maisuari, joan baino lehen.
- Betidanik umetxoak asko gustatu zaizkit, eta musu asko eman nahi nizkien, abestu, kuku-ka jolastu, mundua deskubritzen lagundu...
 - erantzun zion-. Hori da zuk nahi duzuna?
- Uyyy... ez dakit hainbeste pazientzia daukadan... -erantzun zion neskak.



Hurrengo etorkizunerako bisita enpresa ezin modernoagora izan zen, non trenak eraikitzen zituzten. Lekua oso handia zen, makinez, robotez, ordenagailuz... beteta. Sorginen amak han egiten zuen lan.



- Nire robota nola dabilen erakutsiko dizuet -esan zien-. Horretarako oso garrantzitsua da ordenagailuekin konektatzea -gehitu zuen, kolorezko kablez betetako makina bati robota konektatuz.



- Eta nola daki robotak egin behar duena?
 - galdetu zion Buruk, oso adi.
- Nik ematen dizkiot jarraibideak. Ordenagai-luarekin esaten diot mugitzeko, zerbait hartzeko edo pieza batzuk lotzeko. Eta agente honekin, bere besoak mugitzen ditut. Begira. Zuk probatu.





Buruk agintea gorantz mugitu zuen eta robotak beso bat jaso zuen.

- Agurtzen ari zaigula dirudi -barre egin zuten bere lagunak.



- Eta zuk zer ikasi duzu hemen lan egiteko?
 - jakin nahi izan zuen neska batek.
- Ingeniaria naiz, baina ikasketa horiek egin aurretik, eskola garaian, matematika eta marrazketa ikasi nituen, eta baita informatika asko ere. Beraz, badakizue, eman gogor matematikari!




Joan baino lehen, bukatu berria zuten tren
ultramodernoa erakutsi zien. Gidaria behar ez
zuen tren bat.



- Etorkizuna makina honen antzekoez beteta egongo da, seguru! -esan zion Sorginek Bururi.
- Ni, heldua naizenean antzeko gauzak egin nahi ditut! -erantzun zion Buruk, oso pozik-. Beraz, oso gogoko dudan informatika ikasten jarraitu beharko dut, eta matematika gehiago ere ikasi beharko dut.






Txangoa arrakastatsua izaten ari zen!
Kiroldetako bisita baino ez zen falta. Sartu
zirenean, hainbeste aktibitate zeuden, ez
zekitela nondik hasi.



Gimnasioan, neskak eta mutilak zeuden bizi-
kletaz ibiltzen, zintetan korrika egiten,
eskalada-murruan...



Igerilekuan, jendea igeri egiten zegoen,
eta baita gimnasia klase bat
aiton-amonekin ere.







Areto batean, dantza klase bat ikusi zuten.
Mutilak eta neskak primeran ari ziren
pasatzen.




Eta kantxa batean... saskibaloia talde bat gurpil-aulkietan! Hau poza Sorginena!
- Goazen jolastera! -animatu zituen besteak.




ondo egiten zuen Sorginek!



Jolasean ari zirenean... bat-batean,
argia joan zen!!
Ez zen ezer ikusten!!







- Zer gertatu ote? -galdetzen zieten elkarri.
- Hemen geratuko gara ea argia bueltatzen den -esan zuen maisuak.

Baina, bai zera!, dena ilun jarraitzen zuen eta garrasiak entzuten hasi ziren.

- Aaah!! Ura izoztuta dago! -esan zuen mutil batek aldagelan.
- Hotz egiten hasi da! Berokuntza ez doa!
-entzun zitzaion norbaiti igerilekutik.






- Goazen zer gertatu den ikustera -esan zion Sorginek Bururi-. Nire aulkiak larrialdiko argiak ditu gurpiletan eta bidea argiztatuko digu.

Esan eta egin. Atezaindegira heldu ziren eta atezainak esan zien:

- Sistema elektrikoak huts egin du. Ordenagailuz kontrolatuta dago eta eraikuntza osoan eragina du. Okerrena da ordenagailuetan aditua den pertsona ez dagoela.
- Ordenagailu kontua bada, agian nik konpondu dezaket -esan zuen Buruk.



- Animo Buru! -esan zion Sorginek.
- Ea lortzeko gai zaren! -esan zion atezainak.





- Hemen kable batzuk aske daude -esan zuen
Buruk-. Ordenagailura konektatu behar dira.




Buruk banan-banan kable guztiak
konektatu zituen.



Gero ordenagailua berrabiatu zuen.
Eta argia bueltatu zen! Eta ur beroa!
Eta ateak ireki ziren!...





- Ez dut ulertzen nola dakizun ze kable doan entxufe bakoitzean! -esan zion Sorginek, liluratuta.
- Zuk festetan eta txangoetan egiten duzun moduan, niri ere "saltsan" ibiltzea asko gus-tatzen zait, baina ordenagailuarekin -erantzun zion Buruk, harro eta barre eginez.

Berehala maisua eta beste gainerako
ikasleak heldu ziren. Guztiek zoriondu
zituzten Buru eta Sorgin.



- Ikusi duzue -esan zien maisuak-. Buru bere burua oso ondo prestatzen ari da izan nahi duen etorkizunerako.
- Eta baita ni ere, maisu! -esan zion Sorginek-. Bidaiak antolatzen oso ona naizela konturatu naiz. Etorkizunean agian bidaiak antolatu ditzaket...



Guztiok barre egiten hasi ziren. Eta batera
abestu zuten:

♪♪ Zure etorkizuna / zuk aukeratu,
gogoz eta ahaleginez / geroa prestatu,
ikasi, jolas, dantza / denbora banatu,
neskek eta mutilek / egin dezakegu. ♪♪

